

Imanol Murua Uria eta Humberto Unzueta, «Suetena Belfasten»en egileak

Tregua garaian gerra giroan

Irlandan sena eta Euskal Herrian luma baliatuz, Belfasten bizi izandakoa papereratu digute Imanolek eta Humbertok. «Bi kazetari euskaldunek Belfasten su-eten garaian ikusi eta entzundakoa» dakar liburuak, kronika jeneroaren armairuan sartu dutena. Hangoaz eta hemengoaz jardun dugu, atsedean garaian, lan giroan: kronika baten kronika egitekotan.

TENNENTS garagardoa irakur daitekeen nikia darama Imanolek; Belfasteko abuztuko Festibalekoa Humbertok. Hogeita hamar urte inguruko bi kazetari euskaldun. Irlandan, Belfasten, su-etenaren azken hilabeteak bizi eta jasotakoak. Irribarretsu ekin diote, eskuarki galdetzailea den kazetari galdekatuaren herabeaz, liburuaren sorrera aipatzeari. Aise hartu dute biek, ostera, solasaren haria eta gerra giroko su-eten baten kronikaren labirintora sartu gara.


Susa argialetxearekin kaleratu dute «Suetena Belfasten» liburua. 1995eko udaberria eta uda Belfasteko Falls auzune errepublikarrean eman zituzten. «Euskaldunon Egunkaria»rako kazetari lanak egiten, han ezagututakoek liburua osa-

tzeko eman diete. «*Ez da Ipar Irlandako gatazkaren azterketa, ez da hango egoera politikoaren esplikazioa*», argitu digu Imanolek. Eurak ikusi dutena, eta han ezagututako eta elkarriketatutakoek kontatu dietena baizik. «*Batez ere gatazkarerkin lotuta dauden bizipenak, baina horren barititik hango errealitate soziala eta beste hainbat errealitateen zertzelada batzuk zirriborratzen dira. Gatazka, horren guztiaren markoa da*», osatu du Humbertok.

Liburuak osagai politiko handia du, present dago kapitulu guztietan, baina ez

hori beraien jomuga nagusia izan delako. Imanolek azaldu digu: «*Giro politikoetik aterata ere, segituan topo egiten duzu han komunitateen artean dagoen zati-ketarekin; azken batean gatazkaren oinarrian komunitate historikoen zati-keta dago eta eguneroko bizimoduko edozein arlotan banaketa hori ikusten da*». Humbertok presentzia horretan sakondu du. «*Ezinezkoa litzateke han bizi eta hori saibestea; bertako arazo politiko eta nazionalari ezin zaio ihes egin, ezta horretan arretarik jar-tzen ez duenak ere*».

**«Gustatuko litzaidake leitzen duenari eskemak hausteko balio izatea liburuak»
IMANOL MURUA URIA**



Lehen liburua bientzat, burutzeak emandako lana azpimarratu dute. «*Hango lanak baino, gero idazteak, landu gabe neukan jenero borrek eman dit lana. Hango beharra ez zitzaidan gaitza egin*», nabarmendu du Humbertok.

Lana eman die kronikak. Ordea, maldak bazuen gustuko aldaparik. «*Konturatu naiz Irlandari buruz nuen ikuspegia nabiko okerra zela. Eta gustatuko litzaidake hau leitzen duenari ere eskemak hausteko balio badiu*», dio Imanolek. Eta asmo horretara errealitatea erabili dute, egunerokoa eta Irlandaren iragan hurbilekoa.

Beraien liburua ez dela literatura esaten dute —hitza handiegia bailitza—, eta kontaktzen den guztia gertatua dela. Humbertok askatu du mataza: «*Gure asmoa ez da bereziki literarioa izan;*



Iazko udaberri eta udan -tregua indarrean- ezagutu eta bizitakoak jaso dituzte «Suetena Belfasten» lanean. (A.: Alberto Elozegi).

gure lanaren oinarria eta lana bera periodistikoak izan da, horixe menperatzen dugulako». Ez da, baina, horretara mugatu. «Errekurtso literario batzuk erabili behar izan dira, eta hein horretan fikzionatu dira parte batzuk».

Irakurtzeko klabeak

IRAKURLEARI utziko diote, beraz, liburua zer jenerok osatzen duen erabakitzea. Ez da irakurlearekiko nahi duten gauza bakarra. Liburuak eraginik izan dezan ere bilatu dute. Onartzen dute, ordea, beraiek idatzia den klabetik ulertzekoa dela. «Saiatu gara kronika objektiboa egiten, baina irakurleak jasoko du euskaldun baten ikuspegitik Belfasteko

auzo katoliko eta giro errepublikar batetik su-etenaren garaian Belfasteko komunitatearen egunero bizimodua. Gauza gebienak, dena den, hemen ditugun ikuspegi eta bizipenetatik kontatuta daude». Ez dute uste, haatik, liburua errepublikarren gorespena denik. «Ez ditugu geure aurreiritziak ezkutatu. Gure ikuspuntutik bertako giroa eta errealtatea zelan ikusten den eta zelan pentsatzen dugun, balaxe ekarri dugu. Gainera, Euskal Herrian bizi izanda, ezinezkoa da bertako errealtatearen aurrean insensiblerik izatea; alderdikotasun batez jokatzeko da». Alde bat nagusituagatik ere, ez dute bestea alboratu. «Saiatu gara eta lortu dugu giro protestan-

«Gure lanaren oinarria periodistikoak izan da, horixe menperatzen dugulako» HUMBERTO UNZUETA

teetan sartzea, eta hori ere ispilatu dugu». Areago, Belfasteko errepublikar askok ezagutzen ez duten giro protestantea ezagutu dute. Imanolek esandakoa Humbertok biribildu du: «Gure aurreiritzi batzuk bertan behera geratu ziren mundu hori ezagutu abala. Alde horretatik ez gara joan jarrerera hertsiki batekin, eta ideiak inolako lotsa barik bota ditugu».

Irlandako kronika den liburuan nabigatzen, ezinbestekoa da labanaren bigarren ahoa ere zapaltzea. Irlanda eta Irlandako gatazka ere izan ditugu mintzagai, beti ere tregua bizi izan duten bi lagunaren esperientziaz, eta han hauteman ahal izan zuten giroari erreparatuta. Jendea etsituta sumatu zuten, batez ere giro errepublikarrean. Hala ere, hamabi hilabetez bizi izandakoak —«ez bakea, gerrarik eza baizik», izan zuen eraginik gerra oso present den herri bateko bizilagunengan. «Arlo guztiak gerrak mediatizatuta daude: arkitektura, kaleen diseinua, norberaren esperientziak... Hori, arazo hau konponduko balitz ere, luzerako izango litzateke». Horrek ez du erran nahi, baina, aukera galtzeko daudenik. «Jendea etsituta bai, baina abal den presioa egiteko prest dago lehengo egoerara ez itzultzeko, su-etenaren garaian han jende guztiaren bizimodua onera aldatu delako».

Eukal Herriaz berba egitea derrigorrezkoa suertatu

zaigu. Hango prozesua hona ekar daitekeen. Eszeptiko ageri dira biak. «Oso desberdina da. Ikas daiteke ban ikusitakoetatik, jarreretan, zer egiten ari diren... baina hango eredia hona ekar daitekeela gebiegizkoa iruditzen zait», azaldu digu Imanolek. Nolanahi ere, azpimarratu nahi izan du «hartu duten arriskua. Aurre-rapauso asko eman ditu mugimendu nazionalistak, arrisku handiak hartuz».

Belfasteko gizarteko arlo asko jaso dituzte liburuan: tabernetako giroa, kirola, kultura... Gaelikoaren harira jo dugu, Belfasten duen presentzia txikia estakuru. Egoera kaskarra dela aitortuta, zehaztu nahi izan dute irakurleak topatuko duena. «Guk Belfasten ikusi dugunaren flash batzuk eman ditugu, baina horrekin ezin da Irlandakoaz gogoeta egin. Belfasten oso gutxiak hitz egiten du gaelikoz, askok berba bakarra ere ez daki. Hala eta guztiz ere, nabiz eta ikusten den egoera txarra dela irla osoan, hobera egiteko zutabe batzuk ipintzen ari dira, batez ere Hegoaldean. Kultur eremuaren garrantziaz asko ari dira konturatzen».

Belfasteko pub batean bageunde bezala, luze joan zaigu solasaldia, agian ez-taria lehortuko zigukeen Guinnessa beharretsiz. Haren faltan, «Suetena Belfasten» kronikako orrietan edatera jo dugu, jakin-egarririk asetuko digulakoan.

MIKEL ELORZA